

ERRONKARI'KO GABON KANTAK

Lau urte dira Erronkariko kanta zarrak batzen ari nintzala. Azkenean ondorean beste batzuek ere jardun ziran orretan. Ekñiaz, arkitu al izan degu, lengoak jaso zutenek gain, zerbait geiago ere.

Alegin guztiarekin salatzea mezezi dute bilketa oiek. Gutxienez degunean batu al izan bai ditugu kanta ez ezagun edo ezagunen atal berriak. Edo errikantez berritua edo toki bereko tan matz gertatzen dan bezela, era bereziatara aukeratuak. Ta, nunaiko erri-kantak estimagarriak badira, Erronkarikoak estimagarriagoak ditugu Zergaitik, Erronkarin eskuko beatzekin kontu genezake gelditzen zalzikigun euskaldun banakak. Izaba eta Uzta-rrozeko errietan bakarrik, eta gazteenak 82 urte ditu, Uzta-rrozen bada 62 urteko jaun bat euskeraz

Ori argi ikusi det egin ditudan azterketetan.

Gaurkoz, Eguerri orob, bildu ditudan Gabon-kanten berri emango det ageribidez.

Izaban ez det atzeman Eguerrietako kantarik, baiña bai Uzta-rrozen. Uzta-rrozen eta Bidangozen, Azkuek bere denboran batu zituan. Geroztikoak ez dute gela-rririk jarri, Estornés-ek bildatu zuan Goatzenen bertso izan ezik, adieraziko degun bezela.

Azkuek, Bidangozen jaso zien Gaiaren gai ona, Mendigatxa atalak dakizkitenak, euskerarik jakin gabe ere. Lenbiziko zatia bat ez ere. Esaten dutenez, gainerakoa aitzu zitzalela, kanta bukatzen uzteke, diru edo janari zerbait emanaz atetik bialtzen zituzte-lako.

Pusketaz osotua det, **Galon galo-** na dalako au; gaur zabalago ezagutzen dute **Galon gairona** bezela, baiña argi dago jatorrizkoa aurretikoa dala: tartean "r"-rik gabekoa. "R" ori geroztik erantzia da.

Ai Mariá
Galon gairona,
sortu da Jain ona,
naterabitate
urterebitate,
argizagia
medalla andia,
zutara miratanda
mundu guzia,
xan doro petik lakote,
gilztak eskian dakote.
Paradusuko zabala,
kanko unra sagarra,
xagar kartarik xan lezana
Jeharen seme ta alaba
Jesus, Santa Maria,
dakigula baiña.



Izaban euskeraz mintzatzen dan gizoneko bakarra: **Ubaldo Hualde, 92 urte.** Uzta-rrozen jaioa ta Izaban bizi dana. Baita ere, gaur, bera da aintziriako eraz jaxien dan bakarra.

mintzo dens, baiña aurizarotik xuberotar artzaiekin hortuetan bizia da eta bere euskera Kubero aldekoa geiago da Erronkarikoa baiña.

Beraz, biltze lan oiek, iduritzen zait, eriotzari lapurretazkoak izan dirala. Beste bost, sei edo hamar urte barru, luzen jota ere ama-bost, Erronkarin bertakorik ez da bat bera ere euskeraz mintzatu-ko. Bertako euskera joana izango da, eta orain arte jaso ez degun guzia ere bai. Jaun-andre bana-ka orrek eramango du beste munda-ria.

Azkue, Mitxelena, Elosegi, Estornés, Izaguirre, Allieres... i.a. jaun oleri esker zerbait jakin genezake erronkariarren euskalkia-ri buruz; bertako esatera, oltura, ipitu, kanta ta abar; baiña orain-dik jaso gabe, jakin gabe, uzte de-guna askoz ere geiago da noski.

duaz etorri ziran. Orregaitik, le-nengo ta azkenengo bertsoak iru-rugetar urtetik gorakoak ezagu-tzen dituzte, baiña gainerakoak esotzeko larogetik gorako euskal-dunengana jo berria dago.

Kanta au, Xuheroan asko zabal-dua dago. Andik etorria da noski. **Hots ainguriek**in ezagutzen da mendí aldeko errietan, eta Belo-ken argitaratutako **Kantikak**



Erronkariko euskaldunik gaztena da: Rikarda Pérez, 82 urte; uzta-rrozearra. Alai, argia, oroimen zorrozduna. Bera izan da kanta auek biltzen geien lagundua. Soñean «taika» deitzen dien buru-manteliñarekin.

(Urt. 1948) izeneko liburuan ere arkitzen da. Baita ere Aita Donos-tiren lanetan (I - Natividad libu-ruaren 34.-gn. kanta. Lekaroz 1980).

Erronkarin zenbait gauza beste erabatera aldatunk ditu, baiña ez aldakuntza aundirik. Xuhero-ko kanta oleri esker, al izan nuan Uzta-rrozen bertso geiago arkitzen. **Kantikak** liburukoekin baliaturik, bertso bakoitzaren asiera gogoraz-ten nien uzta-rrozear eusalduneri eta ezagunak zituztenen aña las-ter artzen zuten ta bukatu arte kantatu.

Xuberotik Erronkarirako alda-kuntzarik bereziarena da, azkenen-go bertsoa. Au ez baita arkitu Xu-heroan, eta euskalkitik agiri dit Erronkarin bertan sortua dala. Orrez gainera, kantaren izena ber-ri ere aldatua dute, eta Xuheron na ere orlik artua bai du; **Erron-Hots ainguriek**in asten dana, izen-karin (obeto esan. Uzta-rrozen) "Goatzen ainguriek" asten da eta **Goatzenak** deitzen die. Jaki-ña, bigarren-go era onetan silabaz luze-ten da eta doinuak neurria gal-ten du; baiña sinalefa gogor bat bide dala, uzta-rrozearrak, beartzen dute neurria. Ara omen, jaso al izan dedana:

Goatzen ainguriek
arkanxleliekin
gaur kantazera,
gore Erregearen

Jeinko Semearen adoratzera,
gore Erregearen Jeinko Semearen adoratzera.

Goatzen gu ere, biotzez berere, leku kartara, Jeinko gizonaren, Jesus maitearen adoratzera.

Esan dedan bezela, azkenengo bertso au, oso-osorik Erronkarikoa da. Gainerakoak Xiberoko kutsua dutenez —paraje onetan erriak daramate. Erri-kantak mugarik ez ere ez, izatez — aisa zabaltzen dira nunaatik mintzaira berdinkeon artean. Sarri nekez igartzen zate mundikakoak diran ere.



Azkue ta Aita Donostiren aipa-tu ditugun liburuetan arkituko di-tugu bi kanta auen doñuak. Emen, beren zati ez ezagun bat-zuek datoz aien gelarri.

Gaurko erronkariar sasoko-entzat, joandako mundu bat da kan-ta auek girotzen zutena. Gaurko jendea, izkuntzaz, pentsaeraz, az-turaz... itz batean: izakeraz urrundak daude jatorrizko añai diran xuheroarregandik Erribe-rra ta Arasoikoen antz geiago dute. Urte labur batzuek tartea, atenda daude jatorrizko izakerarekin. Beste mundu bat da belaunez al-datua eta bestelako portaera bat dute. Au bai argi nabari dala eus-keran (edo obeto oraindin berek dioten bezela **uskara**) dakienekin eta gainerakoekin ar-emanak izan ondoren. Orainokak, guziak a-oz-batez esaten dute naparrak dira-lin: "Pero, nuestros padres eran vascos". Gure izkuntzaren zen-tzuek bereziko lukean bezela: Euskalduna edo erdeiduna; bata edo bestea: izan edo ez izan.

JUAN SAN MARTIN.

OARRA: Zenbait itz eta aditzen argitasunak.

Ai Mariá = Ave Maria; ainguriek = aingeruekin; argizagia = Ilargia; artzaína = artzaína; be-láina = belauina; berere = bada-ri; bizen = bal zen; dakote = datorke; doro = oro; erabez = beldurrez edo lotsaz; erdiherriari = aurr egin berriari; Galon gai-rona = Galon gauna edo Gau-aren gau ona; goatzen = goazen; gore = gure; Jain = Jaun; kal-itzearako = kalteerako; kan = han; kanko = hango; kartarik = hartarik; lakote = letorke (?); mazte = enazte; naterabitate = natibitate; sentotzen = sendatzen; ulunpe = llunpe; urtere-bitate = urteren-bitarte (?); xagi = jakí edo yagi; xan = jan; ziezun = zaizun.



Badugu artzaína arinik belsina, laster zoin lehen; xagi aldinez egia sortu denez, Jesus Belenen.

Mazte erdiherriari Aur ekin berriari nekez sentotzen. Aurra ziezun sortu, bera ez eritu, Birjena bizen.

